

Helburu berberak

HAUTESKUNDEAREN

bi-dez bakarrik, ez ditugu gure arazoak konponduko. Hau ez da berria baina tarteka oroitu beharra. Gaude ginen bezala, danak ditugu gure aurrean aurka, bide luze eta latz honetan. Benetazko gauza guti aldatuko dira hauteskunde emaitzarekin. Aspaldiko galderak erantzun beharrean daude eta gaude. Horregatik Euskal Herrian noiztzen ditugun arazoak aztertzen hasten garenean, berehala sortzen zaigu galdera: ba ote da irtenbiderik?

Batzuek, gutik (baina badira honelakoak), honela erranen dute: «konponbidea erraza da, nola edo hala, jende hori kontrolatu». Konponbide honen aldekoak guti dira, baina hain zuzen ere horixe da PSOE+EE eta PPK pizten duten bidea, Euskal Herriaren okupazio politiko eta militarreko ate guztiak zabaltzen dizkietelarik horrela pentsatzen dutenei.

Beste zenbaitek, berriz, hau guztia konpon dezakeenik ez dela sortu ezta sortuko ere uste duzue. Zuek beharbada, Franco hil zenean «Behin otsoa hil ez dela ardi hilik gehiago izaten». Ez zen hala gertatu eta gaur ezina zaizue Euskal Herrian zer gertatzen ari den ulertzea bera ere.

Baina hemen gaude eta aunitz gara (hauteskunde autonomikoetan ikusiko da), Euskal Herrian irtenbide itxurazkoa lortzearen zernahi egin behar dela uste dugunok. Irtenbide hori Euskal Herria eta Estatu espainiarren arteko negoziaketak politikoa ekarriko duela uste dugularik.

Estatuko botere politiko eta faktikoei egin behar duten gure Herriaren lehen lehenengo eskubideen onarpenak, gainera, oinarri tinko, okerrekin eta argiak behar ditu. Interpretatua izanen denean ez du inolako zalantzarik iza-

teko aukerarik eman behar, Moncloako Estatutuarekin gertatu zaiela erraten duten moduan.

Era berean, oinarri tinko horiek ez daitezke arbitrarioak izan. Hau da, gure Herriak dituen arazorik nagusienak ikutu behar dituzte, hala nola errepresioa, langabezia, krisi ekonomikoa, korrupzioa, euskararen atzerakada eta zinez bai errepresentatzaile bai demokratikoak izan beharko luketen instituzio politiko batzuen eza.

Nik uste, oinarri tinko horiek, gaur herriak aldarrikatzen dituenak, jasotzen dituen bakarra KAS Alternatiba dugu.

Franco bizi zelarik, orduko alderdi espainiarrek, PSOEk berak batipat, gure arazoetako irtenbideak agindu zizkiguten. Gero ordea gure errebindikazioekin joan gatzazkienean, ukatu egin digute orduan agindutakoa. Hori aski ez izanik, desestabilizazioaren bila gabiltzala leporatu digutelarik gainera. Zer erran nahi duen desestabilizazio hitz honek? Beraien ustez botere faktikoa hasarre litzakeen zernahi egitea.

Guzti horregatik, beraz, gure alternatibak jasotzen ditu gure Herriaren errebindikaziorik funtsezkoenak, bai, 1977 urte hartan Erreforma espainiarren arauak egiten ari zirenean, botere faktikoa bazterrerazi eta debekatu zituztenak. Gero berriro, 1982an, «tejerazoa» ezarri zituen mugaketa haien ondorioz aipatu izan zirenak, eta ez dugu ahaztu behar urte horretan bertan egin zela PSOE Gobernu espainiarren jabe.

Krisi ekonomikoa dela eta modako hitz bihurtu da «errekonbertsioa», gure artean fama gehiegi hartu duenlarik zoritxarek. Hitz honen esanahia garbi ikusi da industri munduan, ez bait du langileen bizimoduaren okerragotzea

besterik ekarri.

Konzeptu honek gaur egun egiazkoa den krisi ekonomiazko egoera latza ematen digu aditzera. Baina ez da bakarra, badira halaber krisi kultural eta politikoa ere. Beraz, krisi ekonomikoa dela eta, hartzen dituzten neurriekin batera ados ez egotea eta berpizkunde nazionalerako alternatiba oso bat eskatzea, gaur bidezkoa dela uste dugu.

Aunitz gara gaurko egoera honi erremediorik bat jarri behar zaiola uste dugunak, bestelako konponbideak nahi ditugu ordea, gaurkoak ez bezalakoak eta benetan litezkeenak. Hartu behar diren neurriak gainera, bizi dugun egoera larri honetatik ateratzeko eta Herri bezala bidenabar suspertu gaitzen, berreraikuntza nazionalerako programa baten puntuak izan beharko lukete.

Gure Herria eraikitze, horrenbestez, ezinbestekoa da arazo guztiei legebide demokratiko argi batez egoki erantzuteko gauza izanen den eremu politiko berria. Euskaldunok arazo hauei egoki erantzunen dien instituziorik izan ez dezagun, Madrilek betidanik erakutsi duen jarrera aski ezaguna bazea ere.

Gure Herria ez dabil pribilegioaren bila burukatzen, ez dugu justiziaz gurea dena besterik eskatzen. Ez dugu mugak zabaltzerik eskatzen, Euskal Herriaren lurraldea errespetatzea baizik.

Ez dugu inor gure esanetara jarri nahi, gure erabakitze ahalmena eskatzen dugu eta erabakitzen duguna errespetatua izatea, hori besterik ez.

JOSU IRAETA
DIPUTATU OHIA

BERRIAKZIRI




FLOREN AOIZ
Herri Batasunako bozeramailea
EGIN

«Madrilek, hartza-
ren larrua hil aurretik saldua
zuenak, gogoeta egin behar
du»



JESUS AIZPUN
UPNko lehendakaria eta
Nafarroako diputatua
EL MUNDO

«PP eta IU
berriro ere
oposizioan egongo dira, na-
zionalista guztiak, Gobernuan
edo hortik kanpo, PSOEren
aurka joango direlako»



MARIO ONAINDIA
PSE-EEko senadorea
Gipuzkoatik
EL DIARIO VASCO

«PSE-EE
euskaldun
mundura zabaldu behar da»



JOSE MARIA CUEVAS
CEOeko lehendakaria
ABC

«Inbertsioak urte-
bete baino gehiago darama
geldiarazita eta ez bada fun-
tsezko aldaketarik egiten
ekonomi politikan, horrela
jarraituko du»

Atzerritarren eskubide eta askatasunak

LEHENDABIZIKO

Atzeritar-tasun Erret Dekretua 1852. urtekoa da. Une hartako gizarte eta politika errealtatearen arabera egindako araua. Argi eta garbi adierazten zuen zein zen atzeritar eta zein ez, eta zein eskubide zituzten azken horiek. Geroagoko garaietan beste hainbat arau eta lege ere arautuko zuten gai hori: 1855eko asilo Legea, 1876ko Konstituzioa, 1889ko Kode Zibila, 1958ko Atzeritartasun Legea, hala nola Gobernuak erabakitako beste arau eta xedapen ugari, Estatuan atzeritarren sartzeara, egotea eta bizitzea arautuz joan direnak. Harriarriro, Francoren diktaduraren erdian, 1958an, egindako Atzeritartasun Legeak estraditatzeko pasiboa arautzen zuen kasik indarreango Atzeritarren Askatasun eta Eskubidei buruzko Legea 1985. urtean onetsi zen arte... ez zuen estraditaziorik onartzen delitu politikoengatik, nagusi zen nazioarteko jokabideari jarraituz... Gainontzeko xedapenek, zatika eta era desberdinetan, lan baimenak arautu zituzte 1985. urtera arte. Aipamen berezia merezi du erregimen berezitan Hego Amerika, Portugal, Brasil, Andorra, Filipinak, Ginea eta abarreko herriarrei emandako tratamenduak.

Hala ere, Espainian atzeritar direnen eskubide eta askatasunei buruzko uztailaren 1eko 7/1985 Lege Organikoak —argitaratu zenetik aurreko lege eta arauak baliogabetu zitue-

nak— xedapen zehatzak jasotzen ditu berorien Betetze Araudiarekin batera, eta baita Atzeritarren eskubide eta askatasunak ere.

Lege honek, oro har, atzeritarren erregimen orokorrari buruzko ikuspegi orotarikoa ematen du, nahiz eta kontuan hartu eta aipatu egiten dituen nola nazionalitatek gabeko atzerriko herritarren hala Espainiak kolonizatu zituen herriekin zerikusirik izan duten nazionalitate jakin batzuetakoengan eragina duten erregimen bereziak.

Funtsean, lege honek oro har balorazio negatiboa merezi du, zeren eta lan egiteko eta bizitzeko eskubidearen moduko gaitetarik ondozotzatzen diren alderdiak, errealtatean, balorazio politikoetan gerta daitezkeen gora-beheren arabera mugatzaile eta murriztaile den oso alderdi garrantzitsu bati lotuta baitaude, hain zuzen herriko egoera sozio-ekonomikoari, enpleguari, elkarrekotasun erregimenari, egoiliarren sustraitzea inolaz ere kontuan hartu gabe. Aipamen berezia merezi du, legearen arabera eta praktikan, etorkinak ohiltzeko posibilitateek mugarik ez izateak. Badago nabarmen negatiboa den eta giza eskubidei dagokien alderdi bat, alegia oso gaitasun judizial urria dagoela etorkinak ohiltzeko erabakietan esku hartzeko, behintzat herrian legez kanpo bizi diren etorkinen kolektiboaren kasuan. Harreman historiko-kolonialaren ondorioz erregimen bereziak aplikatu zaiz-

kien herrietako etorkinei dagokienez, une hauetan horien eskubideak murriztu egin dira eta lehentasunezko tratua besterik ez dute jasotzen. Aipamen berezia merezi dute Ceuta eta Melillan bertako herritarrekin planteatuta dauden arazoak.

SOS Arrazakeria eta beste hainbat GKE (Gobernu Kanpoko Erakundeak) bat datoz 1985eko Atzeritartasun Legea deritzonari buruzko ikuspegi horrekin. Estatuko administrazioak egitura horren baitan eta hori erabiliz jarduten du, Legeak ahalbideratzen dion nahi bezalako aplikazioa eginez. Jatorri guztietako ehundaka etorkinek Gasteizen, Tuteran, Bilbon... jasandako atxiloketa eta deportazioek ezin argiago erakusten dute Atzeritartasun Legea Askatasun eta Eskubideen Lege bat izan beharrean garbiketa etnikoko operazio bat dela eta, egin dutenagatik baino gehiago beren egoeragatik, etorkinen defentsa gabezia eragiten duela, horiek delinkuente bihurtuz. Testuinguru horretan oso botere handia ematen zaio poliziari nahi duen bezala aritzeko. Horixe erakutsi du Poliziako Sindikatu Bataeratuak (SUP) berak Madrilen etorkinen aurka egindako sarekadei buruz azaldu duten kontrako jarreraren bidez.

FEDERICO GARCIA GONZALEZ
EUSKAL HERRIKO SOS ARRAZAKERIA
● Erredakzioan itzulia

ZAKILIXUT



© Olariagak